



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Ibilbideak egokituz: Migrazio klimatikoa

Bigarren Hezkuntza 1. zikloa

ARLOA/IKASGAIA: Natur Zientziak

Ezagutzen dituzue zeruko bidaiari nekaezinak? Hegazti migratzaile batzuek bidaia luzeak egiten dituzte urtean bitan, erronkaz eta abenturaz betetako ibilbide paregabeak jarraituz. Hala ere, beren bidean gero eta arrisku handiagoi egin behar diete aurre, horietako asko klima-aldaketak eragindakoak.

Esperientzia honetan, buru belarri ibiliko gara haien ezkutuko ibilbideak ezagutzeko eta geldialdiak egiten dituzten lekuak esploratzeko. Prestatu haien aztarnak jarraitu eta zeruak zeharkatzen dituzten bitartean bizirauteko nola borrokatzen duten ulertzeko.